



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko maiatzaren 3a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (2. or.).

—Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina (20. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko azaroaren 22an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Tafallako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Tafallako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (4. or.).
- III. Norainokoa (4. or.).
- IV. Iritzia (5. or.).
 - IV.1. Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra (5. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (5. or.).
 - IV.3. 2009ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (5. or.).
 - IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (5. or.).
- V. 2009ko kontu orokor bateratuaren laburpena (7. or.).

- V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (7. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (8. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (8. or.).
 - V.4. Egoera-balantze bateratua (9. or.).
 - V.5 Galera eta irabazien kontua (10. or.).
 - VI. Iruzkinak, ondorioztapenak eta gomendioak (11. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (11. or.).
 - VI.2. Langileria (13. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (13. or.).
 - VI.4. Inbertsioak (14. or.).
 - VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (15. or.).
 - VI.6. Inbentarioa/Ibilgetu materiala (16. or.).
 - VI.7. Hirigintza (16. or.).
 - VII. "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A." sozietatea (16. or.).
 - 1. eranskina. Kontu bateratuei buruzko txostena.
 - 2. eranskina: "Hospital Nuestra Señora De La Caridad" erakundea (19. or.).
- (Oharra: 1. eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokortetako bulegoetan eta hurrengo web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

2010erako bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2009ko Kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Udalak 98,3 km² dauzka eta 11.394 biztanle zeuzkan 2009ko urtarrilaren 1ean.

Tafallako Udalak, zerbitzu publikoak emateko, hiru erakunde autonomo dauzka: Udal Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua. Hona hemen horiek 2009ko abenduaren 31n zeuzkaten zifra adierazgarriak:

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2009-12-31n
Udala	21.446.014	23.224.881	157
Udal Musika Eskola	495.017	259.481	18
Kultura Patronatua	596.540	65.979	5
Kirol Patronatua	329.562	99.221	9
Bateratua, guztira	22.867.133	23.649.562	189

Oharra: 2009ko abenduaren 31ko langileen artean, behin-behineko 4 langile daude, tailer-eskolakoak, eta beste 39, gizarte enplegutik heldu direnak.

Udalak 2009an bere erakunde autonomoei egin dien ekarpena 996.437 eurokoa izan da (Udal Musika Eskola, 235.535 euro; Kultura Patronatua, 530.561 euro, eta Kirol Patronatua, 230.341 euro).

2001ean, Tafallako Udalak "Ciudad Deportiva Tafalla S.A." (CDTSA) pertsona bakarreko sozietatea eratu zuen –bertako akziodun bakarra da–, kirol-hiria eraiki eta kudeatzeko. Ez du langile berekirik, eta lehiaketa publiko bidez esleituta dauzka kirol-instalazioen kudeaketa eta taberna-kafetegiaren ustiapena.

Halaber, Tafallak Karitateko Ama Birjina Ospitalea izeneko erakundea ere badu; haren xedea da zaharrentzako egoitza kudeatzea, eta kalifikazio juridikoa oraindik zehaztu gabe dauka.

Udala zenbait mankomunitatetan dago sartuta: Mairagako Mankomunitatean –mankomunitate horren bidez ematen dira uraren ziklo integralaren zerbitzua eta hondakin solidoen eta hiri hondakinen kudeaketa eta tratamendua–, Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatean –horren bidez, gazteen kirol-jarduerak nahiz gizarte eta kulturaren arlokoak egiten dira–, eta Tafallako Eskualdeko Gizarte-zerbitzuen Udaltarteko Elkartean.

Halaber, Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoan, eskualdeko Eraikinak eta Etxebizitzak Zaharberritzeko Bulegoan (ORVE) eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean (ANIMSA) parte hartzen du.

Toki entitateari 2009ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretua, toki-inbertsioko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatzeko estatu-funts berezi bat eratzen dituena.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurre-

kontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2009ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa azaltzen da. Laugarrenean, Kontu orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarrenean, udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri nagusiak azaltzen dira. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo. Zazpigarrenean –azkena–, “Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” sozietatearen kontuen laburpen bat ematen dugu.

Gainera, bi eranskin ageri dira txostenean; bata, 2009ko ekitaldiko kontuei buruz udalak eginitako oroitidazkiarekin; bestea, informazioa ematearren, “Hospital Nuestra Señora de la Caridad” erakundearen kontuen laburpen batekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tafallako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tafallako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Tafallako Udalaren 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta 2009ko abenduaren 31n lortuak zeuzkan emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Tafallako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek 2009an aurrera eramandako jardueran.

c) Tafallako Udalaren eta haren menpeko erakunde autonomoen 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak iruditzen zaizkigun gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak eginitako fiskalizazioa hedatu da Tafallako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrera, zeinak honako osagai hauek baitaizka:

- Entitatearen beraren eta bere erakunde autonomoen kontu bateratua (Udal Musika Eskola, Kultura Patronatua eta Kirol Patronatua): aurrekontuaren likidazioa, balantzea, galeren eta irabazien kontua eta eranskinak.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontuhartzaitzaren txostena.

Udalak eta bere erakunde autonomoek aplikaturiko kontabilitate-araubidea irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean ezarrita dago.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia azertu dira, bai eta aplikaturiko oinarritzko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolerako alderdi nabarmenak.

“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” merkataritza-sozietateak urteko kontuak egin ditu, eta kontu horiek udalaren ikuskatzaileak aztertu ditu.

Bestalde, “Hospital Nuestra Señora de la Caridad” ospitalearen kontuak udalaren kontu orokorraren parte ez badira ere, eranskin gisa gehitu zaizkio txosten honi.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Tafallako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2009ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2009ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1993koa da, eta oraindik eguneratu gabe dago; horregatik, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo hori, 2009ko abenduaren 31n, 29.843.095 eurokoa zen.

Ez daude kuantifikatuta funtzionarioen pentsio-sistema berekitik eratorritako betebeharrak aktuarialak.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak alde batera utzita, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate publikoko printzipio eta arauak jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2009ko ekitaldian udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2009ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

2009ko ekitaldirako aurrekontu bateratua 29,5 milioi eurokoa da, eta horrek 2008koarekin alderatuta ehuneko 21eko gehikuntza izan dela erakusten du. Gehikuntza hori, gehienbat, AR-2ren urbanizazio-obren ondoriozkoa da.

Aitortutako betebeharrak 22,9 milioi eurokoak dira, eta aitortutako eskubideak, berriz, 23,6 milioi eurokoak. Horrek esan nahi du aurrekontu bateratuaren gaineko exekuzio-maila, hurrenez hurren, ehuneko 78 eta ehuneko 80koa dela.

Eragiketa-motaren arabera, gastu arruntak 9,9 milioi eurokoak dira, eta kapitalekoak, funtsean inbertsioak, 13 milioi eurokoak. Dirusarrera arruntak 10,9 milioi eurokoak dira, eta kapitalekoak, 12,7 milioi eurokoak.

Eragiketa arrunten betetze-maila, hala gastuetan nola diru-sarreretan, ehuneko 95 baino handiagoa da; kapital-eragiketetan, ordea, ez da ehuneko 70era iristen.

Ekitaldia ixtean, aurrekontuko emaitza bateratu doituia 1,9 milioi euroko superabita zen (2008an, 468.084 eurokoa).

Aurrezki garbia positiboa da, zeren eta dirusarrera arruntek 352.002 euroko kopuruan gainditu baitituzte funtzionamendu-gastuak eta finantza-gastuak (12.411 euroko alde 2008an).

Guztizko diruzaintza-gerakin bateratuak ehuneko 95eko gorakada izan du 2008koarekin alderatuta, eta 1,3 milioi eurokoa izatera iritsi da; horietatik, 276.117 euro gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinari dagozkio (-195.915 euro 2008an).

Finantza-zorra bateratua, 2009ko abenduaren 31n, 5,9 milioi eurokoa da (6,6 milioi euro 2008ko abenduaren 31n). Zorpetze-maila diru-sarrera arrunten ehuneko 8,3koa da, eta zorpetze-muga, berriz, ehuneko 11,5koa (ehuneko 9,2 eta 9,3koak, hurrenez hurren, 2008an).

Emaitzak eta adierazle garrantzitsuenak aztertuz, ikusten da badirauela Tafallako Udalaren finantza-egoeraren hobekuntzak, zeina 2008ko ekitaldian hasi baitzen. Izan ere, positiboak dira aurrekontu-emaitza, aurrezki garbia eta guztizko diruzaintza-gerakina. Azken horri dagokionez, azpimarratu beharra dago ezen gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina positibo izatera pasa dela, zenbait ekitalditan negatiboa izan ondoren.

IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez, zeina 2008ko ekitaldiari buruzkoa baita eta 2010eko martxoan argitaratu baitzen, honako kudeaketa-gomendio hauek bete dira edo betetzeko bidean daude:

- *Egiaztatzea dirusarreraren aurrekontua irekitzeko justifikazioaren oinarria Osoko Bilkurak onetsitako dokumentua dela.*

- *Diruzaintzako kreditua erregistratzea, Nafarroako Toki Administrazioarentzako kontabilitateko instrukzio orokorrean ezarritakoaren arabera.*

- *“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” sozietateko inbertsio finantzarioaren balioa doitzea, aplikatzekoak diren balorazio arauetan ezarritakoaren arabera.*

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- *Aurrekontua eta haren aldaketak onesteari buruz lege indardunetan ezarritako epeak betetzea.*

- *1993ko udal inbentarioa gaurkotzea, altak eta bajak kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko sistema bat ezarriz.*

- *“Hospital de Nuestra Señora de la Caridad” erakundearen izaera juridikoa definitzea.*

- *Planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen zehaztapenetara egokitzea.*

V. 2009ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehar garbiak	Betetakoa (%)	Ordaink etak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1 Langile gastuak	6.799.900	6.714.200	6.419.826	96	6.327.678	99	92.148
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	2.754.200	3.018.200	2.882.232	95	2.538.859	88	343.373
3 Finantza-gastuak	290.700	236.500	235.779	100	218.173	93	17.606
4 Transferentzia arruntak	382.800	386.700	377.634	98	298.715	79	78.919
6 Inbertsio errealak	18.341.100	18.365.100	12.182.688	66	9.312.135	76	2.870.553
7 Kapital-transferentziak	93.400	93.400	93.400	100	48.125	52	45.275
8 Aktibo finantzarioen aldaketa							
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	679.000	679.000	675.574	99	675.574	100	
Gastuak, guztira	29.341.100	29.493.100	22.867.133	78	19.419.259	85	3.447.874

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobrartzeko
1 Zuzeneko zergak	3.042.200	3.042.200	3.093.026	102	2.902.054	94	190.972
2 Zeharkako zergak	500.000	500.000	471.422	94	395.805	84	75.617
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.952.600	1.997.100	1.887.818	95	1.571.307	83	316.511
4 Transferentzia arruntak	5.025.600	5.109.100	5.091.660	100	4.762.098	94	329.562
5 Ondarearen diru-sarrerak	386.200	386.200	399.121	103	319.420	80	79.701
6 Inbertsio errealen besterentzea	3.752.400	3.752.400	2.852.658	76	2.635.163	92	217.495
7 Kapital-transferentziak	14.682.100	14.706.100	9.805.858	67	8.815.718		990.140
8 Aktibo finantzarioak			48.000		48.000		
9 Pasibo finantzarioak							
Diru-sarrerak, guztira	29.341.100	29.493.100	23.649.563	80	21.449.565	91	2.199.998

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	23.649.563	18.695.705
– Aitorturiko betebeharrak garbiak	22.867.133	17.354.740
= Aurrekontu-emaiza	782.430	1.340.965
DOITZEAK		
– Finantzaketaren desbideraketa positiboa	89.452	1.467.902
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboa	1.207.471	595.021
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	–	–
Merkataritzako eragiketen emaitza	–	–
= Aurrekontu-emaiza doitua	1.900.449	468.084

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

ConceptoKontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
(+) KOBRAZKEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	2.793.462	2.095.145
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.200.320	1.741.682
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	704.205	609.658
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	272.567	91.512
+ Ordainketen itzulketak	155	298
– Bilketa zaileko eskubideak	378.526	343.359
– Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	5.259	4.646
– ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	4.194.416	2.225.187
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	3.447.731	1.799.511
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	58.126	24.068
+ Diru-sarreraren itzulketak	6.204	5.882
+ Aplikatzeke dauden gastuak	100	100
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	682.455	395.826
+ DIRUZAINZTAKO FUNTS LIKIDOAK	2.715.296	805.745
+ Finantziazio-desbideratze metatu negatiboak	–	–
= DIRUZAINZTAKO GERAKINA, GUZTIRA	1.314.342	675.703
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	89.451	871.618
Baliabide atxikien ondoriozko diruzaintzako gerakina	948.774	–
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	276.117	–195.915

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA

Deskribapena	2009	2008
A IBILGETUA	29.843.095	27.879.783
1 Ibilgetu materiala	15.825.976	13.564.358
2 Ibilgetu ez-materiala	1.512.410	1.512.410
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	–	–
4 Herri-ondasunak	287.578	265.071
5 Ibilgetu finantzarioa	12.217.131	12.537.944
B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	–	–
6 Deuseztatu beharreko gastuak	–	–
H ZIRKULATZAILEA	5.892.644	3.248.996
7 Izakinak	–	–
8 Zordunak	3.177.248	2.443.151
9 Kontu finantzarioak	2.715.396	805.845
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	–	–
11 Aplikatzeke dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	–	–
AKTIBOA, GUZTIRA	35.735.739	31.128.779

PASIBOA

Deskribapena	2009	2008
A FUNTS BEREKIAK	25.629.385	22.316.691
1 Ondarea eta erreserbak	(973.271)	4.387.727
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	8.067.733	1.684.907
3 Kapitaleko diru-laguntzak	18.534.923	16.244.057
B ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	–	–
4 Hornidurak	–	–
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	5.906.579	6.582.154
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	5.906.579	6.582.154
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	4.199.775	2.229.934
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	4.194.516	2.225.288
6 Aplikatzeke dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	5.259	4.646
PASIBOA, GUZTIRA	35.735.739	31.128.779

V.5 GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Azalpena	ZENBATEKO 2009an:	ZENBATEKO 2008an	Azalpena	ZENBATEKO 2009an:	ZENBATEKO 2008an
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Bukaerako izakinak	0	0
39.- Izakinen balio-galeragatiko hornidurak	0	0	39 Izakinen balio-galeragatiko hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.122.134	966.609
61 Langileria gastuak	5.582.578	5.451.028	71. Jabetzaren eta enpresaren errenta	1.086.096	957.485
62 Finantza-gastuak	235.779	346.619	72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak	2.615.150,	2.699.727
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	544.288	510.393
64.- Kanpo-zerbitzuak, lanak eta hornidurak	2.870.088	2.793.208	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte prestazioak	849.391	865.931	76 Transferentzia arruntak	5.091.660	5.052.917
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	405.010	297.645
67 Transferentzia arruntak	377.634	485.901	78 Bestelako diru-sarrerak	7.593.701	3.263.376
68 Kapital transferentziak	93.400	1.768.698	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	272.813	268.079	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	8.176.356	1.768.688	800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
GUZTIRA	18.458.039	13.748.152	GUZTIRA	18.458.039	13.748.152

Ekitaldiko emaitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKO 2009an:	ZENBATEKO 2008an	DESKRIBAPENA	ZENBATEKO 2009an:	ZENBATEKO 2008an:
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	8.176.356	1.768.688
82 Ezohiko emaitzak (Saldo zorduna)	0	1.856	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	108.623	81.925	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	8.067.733	1.684.907	89. Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
GUZTIRA	8.176.356	1.768.688	GUZTIRA	8.176.356	1.768.688

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik emanen ditugu, kudeaketaren arlo aipagarrienen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

VI.1.1. Aurrekontuaren eta kontu orokorraren alderdi orokorrak

2009ko aurrekontuaren indarraldia ez zen hasi 2009ko uztailaren 15era arte, bere behin betiko onspena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Gastu eta diru-sarrerari buruzko hasierako aurreikuspenak 29,3 milioi eurokoak dira. Argitaratutako aurrekontuak ez du xehakutzen, araudiak ezarri bezala, hura osatzen duten honako aurrekontuetako bakoitzaren kapituluz kapituluko osarara: hots, udalarena eta erakunde autonomo bakoitzarena.

2009ko abenduaren 31 eta gero, aurrekontuari zenbait aldaketa egin zitzaizkion: kreditu-gehikuntzak, 75.500 euro egiten dutenak, eta kreditu-transferentziak, 163.200 euro egiten dutenak.

2009ko ekitaldian aitorturiko betebeharrak eta eskubideak, bai eta 2008 eta 2007koak direnak ere, honela banatzen dira, eragiketa-motaren arabera sailkaturik:

Gastuen kapituluak	Aitorturiko betebeharrak, 2009	Aitorturiko betebeharrak, 2008	Aitorturiko betebeharrak, 2007	2009/2008 aldea, ehunekotan	2008/2007 aldea, ehunekotan
Gastu arruntak (1etik 4ra)	9.915.471	9.942.687	9.082.120	% -0,3	% 9
Kapital gastuak (6tik 9ra)	12.951.662	7.412.053	4.346.259	% 75	% 71
Gastuak, guztira	22.867.133	17.354.740	13.428.379	% 32	% 29

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak, 2009	Aitortutako eskubideak, 2008	Aitortutako eskubideak, 2007	2009/2008 aldea, ehunekotan	2008/2007 aldea, ehunekotan
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	10.943.047	10.579.498	9.762.336	% 3	% 9
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	12.706.516	8.116.207	2.237.973	% 57	% 211
Diru-sarrerak, guztira	23.649.563	18.695.705	12.000.309	% 26	% 56

2009ko gastu arrunt guztietatik, zerbitzuen funtzionamendu-gastuek ehuneko 94 egiten dute (langile-arloan 6,4 milioi euro, eta ondasun arrunt eta zerbitzuen arloan 2,9 milioi euro). Kapital-eragiketengatik gastuei dagokienez, inbertsio errealek (12,2 milioi euro) gastu horien ehuneko 94 egiten dute.

Gastu arruntez denaz bezainbatean, eta informazio-ondorio hutsetarako, zazpi zerbitzuek⁽¹⁾ ehuneko 54 egiten dute: segurtasuna eta polizia, ehuneko 16; haur-eskolak, ehuneko 7; kultura, ehuneko 7; musika-eskola, ehuneko 7; gizarte-sustapena eta gizarteratzea, ehuneko 6; oinarriko

gizarte-zerbitzua, ehuneko 7; eta kirolak, ehuneko 5.

Diru-sarrerari dagokienez, aldaketarik nabarmenenak VI.5 atalean, "aurrekontuetako diru-sarrerak" daude adierazita.

2009ko aurrekontuak bereizgarri izan du, 2007koak eta 2008koak ez bezala, kapital-eragiketen zenbatekoa handiagoa izatea eragiketa arruntena baino; batez ere, AR-2ren urbanizazio-bren gastuaren ondorioz; izan ere, horrek berekin diru-sarrera batzuk dakartza, ukituriko lurzati jabeek ordaindu beharreko urbanizazio-kuoten ondoriozkoak.

(1) Toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioako Departamentuak garaturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera.

Kontu orokorra legez ezarritako epeen barrenean onetsi zen; ez, ordea, toki entitatearen eta bere erakunde autonomoen aurrekontuak likidatzeko espedientea.

Egoera-balantzearen ibilgetuaren saldoak 1.703.230 euroko zenbatekoa jasotzen du “Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” sozietatean eginiko finantza-inbertsioaren balio-galtzearengatik hornidura baterako. Hornidura horretarako funtsak bideratu dira partaidetzaren xede den sozietatearen funts berekien bilakaera dela-eta; izan ere, funts horiek murriztuz joan dira, elkarren segidako galerengatik. Hala eta guztiz ere, komeni da azpimarratzea ezen sozietatearen ondare garbia, 2008ko ekitaldian jasotako kapitaleko diru-laguntzaren ondorioz, handiagoa dela udalak eginiko inbertsioaren balioa baino.

Dagoen 105.153 euroko aldea, “Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” sozietatearen akzioek udalaren ibilgetu finantzarioan duten zenbatekoaren eta sozietateak 2008ko abenduaren 31n zituen funts berekien artekoa, zuzendu egin da 2009ko ekitaldian.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuak egin eta onestea legedi indardunaren ezarritako epeetan.*

- *Aurrekontu-aldaketen espedienteak (beharrezkoak diren argitalpenak barne, kasua bada) izapidetu behar dira indarrean dagoen ekitaldiko abenduaren 31 baino lehenago.*

- *“Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.” sozietateko inbertsio finantzarioaren balioa doitzea, aplikatze-koak diren balorazio-arauetan ezarritakoaren arabera.*

- *Hurrengo ekitaldiko martxoaren 1a baino lehenago onestea udalaren eta erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioari buruzko espedientea. Azken kasu horretan, aurrena organo eskudunak onetsi beharko ditu aurrekontu horiek.*

VI.1.2. Beste alderdi orokor batzuk

Kontabilitate sistemak biltzen ditu entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-, ondare- eta diruzaintza-alorretako eragiketa guztiak; horrela, ba, uneoro informazio bateratua eskaintzen du. Aplikazioak aukera ematen du, kode organiko bat erabiliz, udalaren beraren eta erakunde autonomo bakoitzaren aurrekontuaren egoera ezagutzeko.

Aurrekontua betetzeko oinarrietan deskribaturiko kudeaketa-prozedurek ez dute arduradunik

identifikatzen, ez eta halakorik esleitzen ere aurrekontu-betetzearen jarduketa ezberdinetara.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 lege orokorrak ezartzen du ezen, diru-laguntzak eman aurretik, toki-korporazioek aurrekontuaren betetze-oinarrien esparruan onetsi beharko dituztela diru-laguntzen ematea arautzen duten oinarriak, dela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokor baten bitartez, dela diru-laguntzen modalitate bakoitzerako berariazko ordenantza baten bitartez.

2009ko azaroan, udalak Kultura Departamentuarekiko hitzarmen bat onetsi zuen, zeinak arautzen baitu Kultur Etxerako (gune eszenikoa) obren ehuneko 75eko finantzaketa 2010etik 2012ra bitarteko ekitaldietan. Eranskin gisa gehituriko oroitidazkiak adierazten duenez, horretarako kalkulaturiko aurrekontua 7,7 milioi eurokoa da. Ez da ageri aintzat hartu direnik inbertsio hori funtzionatzen hasteak gastu arruntetan izanen dituen eraginak.

Halaber adierazi nahi dugu oroitidazkiak lehenbizikoz jasotzen duela ingurumena babestu eta hobetzeko eta klima-aldaketa samurtzeko eta/edo horretara egokitzeko neurrien sorta bat.

Azkenik, “Hospital de Nuestra Señora de la Caridad” erakundeak, zeinak xede baitu zaharren egoitza kudeatzea, kalifikazio juridikoa zehaztu gabe dauka. 2009aren bukaeran amaitu ziren lehenagoko egoitzaren ordezkoko eraikin berria egiteko obrak, udalak lagatuko lursail batean gauzatuak (VI.6 atala). Inbertsio hori finantzatzeko, erakunde horrek mailegu bat hitzartu du, 1.460.000 euroko zenbatekoa duena, 2009ko abenduaren 31ko bere egoera-balantzean (2. eranskina) islatzen den bezala. Aipaturikoaren finantza-zamak bere eragina jasanaraziko die ospitaleak lorturiko emaitzei.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren kontu orokorra osatzen duten entitateetako bakoitzaren aurrekontuen egoera-orriak banan-banan likidatzea.*

- *Aurrekontuaren betetze-oinarriak osatzea kudeaketarako oinarrizko prozedurekin, eta arduradunak identifikatu eta esleitzea udalarentzat eragin ekonomikoa izan dezaketen jarduketa guztietarako.*

- *Dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea.*

- *Inbertsio proiektu berriak abian jartzeak eta urtero mantentzeak dakartzan gastu arruntak aztertzea.*

• *“Hospital de Nuestra Señora de la Caridad” erakundearen izaera juridikoa definitzea, dagokion araubide juridikoa aplikatzeko eta udalarekin duen harremana zedarrizteko.*

VI.2. LANGILERIA

Langileen atalean aitortutako betebeharrak 6.419.826 euro egiten dute; hau da, 2009an sortutako gastu guztien ehuneko 28 eta gastu arrunten ehuneko 65. 2008ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honek ehuneko 2ko gorakada izan du.

Lan-kontratupeko langileen ordainsariak 2,4 milioi euro egiten dute; funtzionario diren langileenek, 1,7 milioi euro; eta enplegatzailearen kargura doazen gastu sozialek, kuotek eta prestazioek, 2,1 milioi euro. Azken horien artean azpimarratu behar da udalaren eta probintziaren montepioen gastua; guztira, 1.095.194 euro egiten dute; hau da, kapitulu guztizkoaren ehuneko 17. 2009an, Nafarroako Gobernuak 352.395 euroko diru-laguntza eman die montepioei.

Udaleko aurrekontuetan aitorturiko betebeharrak 5.675.152 euro egiten dute; Kultura Patronatu-koan eta Kirol Patronatu-koan aitortuek, berriz, 132.247 eta 149.313 euro, hurrenez hurren; eta Musika Eskolakoan aitortuek, 463.114 euro.

Plantilla organikoaren behin betiko onespina 2009ko abuztuaren 17an argitaratu zen, nahiz eta ez osoki; eta geroago hari egindako zuzenketa, 2009ko urriaren 16an eta azaroaren 2an.

Plantilla organikoa, non ez baitira bereizita agertzen udaleko langileak eta erakunde autonomoetakoak, 134 lanpostuk osatua da, eta horien ehuneko 36 inguru hutsik daude.

Gastu horien gainean lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lan-

posturako erabakitakoak direla, egindako atxikipe-nak zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. Egiaztatu da ezen azken urteotako plantilla organikoan zenbait postuk maila-osagarri bat esleituta daukatela lanpostukotzat kalifikatu beharko zena, udaleko zerbitzuek helarazitako txosten baten arabera. Aurreikuspena da puntu hori 2011rako plantilla organikoan zuzentzea.

Hona gure gomendioak:

- *Plantilla organikoan bereizita jasotzea udalaren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak.*
- *Plantilla organikoa langileriaren arloko egiazko beharretara egokitzen den analizatu behar da.*
- *Plantilla organikoa egokitu behar da Langileen Estatutuan ezarritakora.*
- *Langileen izendun zerrendan lanpostu guztiak identifikatzea.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginiko gastuak 2.882.232 eurotaraino iritsi dira 2009an. Kopuru horretatik, udalari 2.395.294 euro dagozkio, Kultura Patronatuari 320.380 euro, Kirol Patronatuari 140.649 euro, eta Musika Eskolari 25.909 euro.

Gastuak ekitaldiko gastu guztien ehuneko 13 hartzen du, eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 29. 2008. urtearen aldean, ehuneko 3 egin du gora.

2009ko ekitaldian esleitutako honako kontratazio-espeditenteak egiaztatu ditugu:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)	Epea
Festetako musikaldiak	Laguntza kontratua	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	49.628	Hilabete bat
Gutxiengo etnikoen programa	Laguntza kontratua		50.000	urtebete

Espediente hauei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren ondorioz, egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela eta egokiro kontabilizatu direla, nahiz eta hobetzeko moduko alderdi hauek antzeman diren:

- Gutxiengo etnikoen programa, 2005. urteaz geroztik, urteroko kontratazioen bitartez gauzatu izan da. Espediente honen izapidetzean ez da jarraitu Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean jasotako prozedura, Udal Idazkaritzak adierazten duenez.

- Laguntza teknikoko zerbitzu batzuek 2009an izan duten gastu-bolumena mantenduko balitz, beharrezkoa litzateke horren zenbatekoaren araberako kontratazio-prozedura bat.

- Egin gabe segitzen du kale-argiteria berrikusteko eta mantentzeko zerbitzua kontratatuzko prozedurak; zerbitzu horren gastua, 2009an, 59.518 eurokoa izan da.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazioaren araudia aplikatzea esleipen-prozedurarekin lotutako alderdi guztietan.*

- *Gastu errepikakorretarako, egoki diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea, horietako bakoitzaren kontratuaren gastuaz eginiko zenbatespenaren araberakoak.*

- *Argiteria publikoa berrikusteko eta mantentzeko zerbitzurako behar den kontratazio-prozedura egitea.*

VI.4. INBERTSIOAK

2009. urterako aurrekontu bateratuan aurreikusitako inbertsioen (18.365.100 euro) ehuneko 66 bete da, eta 12.182.688 euro egin du; hain zuzen ere, ekitaldian aitorturiko betebeharrak guztien ehuneko 53.

Inbertsioen ehuneko 99 udalak egin ditu. 2008ko zenbakiekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 143ko gorakada izan dute, eta betetze-portzentajea hobetu egin da (ehuneko 44koa 2008an, eta ehuneko 66koa 2009an).

Honakoak izan dira 2009ko aurrekontuan gastu-bolumen handiena izan duten jarduketak:

	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Aitort. Betebeharren gaineko %
AR-2 urbanizatzeko obrak	12.412.000	9.241.454	74	76
AR-2n igerileku berriak egitea	1.400.000	1.332.091	95	11
Zehaztutako obrak, guztira	13.812.000	10.573.545	77	87

• AR-2 urbanizatzeko obrak

AR-2 urbanizatzeko proiektua 2007ko apirilean onetsi zen, eta obrak 2008ko martxoan esleitu ziren, 12.231.456 euroan (BEZa kanpo), lizitazio-prezioarekiko ehuneko 35eko beherapenarekin. 2008an kontusail honetan erregistraturiko guztizko gastua 2 milioi eurokoa izan zen.

Obraren amaierari –2009ko azarorako aurreikusia– bi aldaketa egin zaizkio, udalak onetsiak, obrak egiteko epea 2010eko maiatzeraino luzatzen.

Udalak AR-2aren urbanizazio-kuotak lurzati-jabeei bidaltzen dizkie obraren egiteari buruzko aurreikuspenei jarraikiz.

• AR-2n igerileku berriak egitea

Inbertsio hau egiten da azaroaren 28ko 9/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez arauturiko Toki Inbertsiorako Estatuko Funtsaren babespean.

Funts horretatik, zeina 2007ko erroldako populazio-kopuruen proportzioan banatzen baita, Tafallari 1.967.225 euroko gehieneko hornidura (BEZa barne) dagokio.

AR-2n igerileku berriak egite aldera azkenean jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa bat dator esleituriko eta exekutaturiko obraren zenbatekoarekin.

Berrikusi egin dira inbertsioen kapituluko gastu-lagin bat eta 2009an esleituriko honako kontratazio-espeditenteak:

	Kontratu- mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)	Epea
Ikastetxeko frontoiaren teilatua aldatzea	Obrak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	98.872	35 egun
AR-2n igerileku berriak egitea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.314.752	180 egun

Eginiko azterketan oinarriturik egiaztatu da kontratuei buruzko legedia bete egiten dela bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean ere, haien alderdirik aipagarrietan, eta kontabilizaturiko gastuak arrazoizkoak direla.

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2009ko ekitaldiko eskubide aitortu bateratuen zenbatekoa 23.649.563 eurokoa izan da; horietatik, udalari 23.224.881 euro dagozkio, Musika Eskolari 259.481 euro, eta Kultura eta Kirol Patronatuei, 65.980 eta 99.221 euro, hurrenez hurren.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzate-maila ehuneko 80koa izan da. Eragiketa arruntetatik eratorriek ehuneko 99 egin dute, eta kapitalekoek,

ehuneko 69. Azken horien exekuzio apala esplikatzeko egin gabeko edo geroraturiko inbertsioekin zerikusia daukaten diru-laguntzak jaso ez izateagatik.

Ehuneko 46 dira eragiketa arruntengatik diru-sarrerak, eta ehuneko 54, kapital-eragiketengatik diru-sarrerak.

Diru-sarrera arruntaren artean nabarmentzen dira tributuen bidezko diru-sarrerak (5,5 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (5,1 milioi eurokoak). Kapital-eragiketen artean, jasotako kapital-transferentzien kapitulua (9,8 milioi euro), batez ere AR-2ren urbanizazio-kuoten dirusarreraren ondoriozkoa (7,5 milioi euro).

2008. urtearen aldean, aitorturiko betebeharrak ehuneko 26 egin dute gora. Hona xehakapena:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitorturiko eskubideak, 2009	Aitorturiko eskubideak, 2008	2009/2008 aldea, ehunekotan
1 Zuzeneko zergak	3.093.026	2.843.728	% 9
2 Zeharkako zergak	471.422	664.037	% -29
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.887.818	1.683.117	% 12
4 Transferentzia arruntak	5.091.660	5.052.917	% 1
5 Ondare diru-sarrerak	399.121	335.699	% 19
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	10.943.047	10.579.498	% 3
6 Inbertsio errealeen besterentzea	2.852.658	4.039.219	% -29
7 Kapital transferentziak	9.805.858	4.076.988	% 141
8 Finantza-aktiboak	48.000	0	
9 Finantza-pasiboak	0	0	
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	12.706.516	8.116.207	% 57
Diru-sarrerak, guztira	23.649.563	18.695.705	% 26

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

VI.6. INBENTARIOA/IBILGETU MATERIALA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1993an egin zen, eta ez da gaurkotu, nahiz eta udal zerbitzu ezberdinei atxikiriko ondasunen zerrenda gaurkotu bat badagoen, kostu-azterlanerako eginikoa.

Udalaren ondasunen eskriturazte- eta erregistrazte-prozesua burutzeke dago.

Kirol-hiria eraiki den lurra udalaren jabetzakoa dira, eta udal sozietateari formalki laga gabe daude.

Udalak, 2009ko abenduaren 1ean, eskritura publikoan gauzatu du "Hospital de Nuestra Señora de la Caridad" entitateari eginiko dohainikako lagapena, ondare-ondasun den eta 862.963 euroan baloratuta dagoen hiri-finka batena, egoitza berria eraikitzeko. Lagapen hori baldintzatuta dago erabilerara hogoita hamar urtez zahar-etxearena izatera, egoitza hori hirugarrenei lagatzeko eta errentan emateko baimenik gabe.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua gaurkotzea eta onestea.*

- *Udalaren ondasunak eskrituratu eta erregistrazteko prozesua burutzea, haien egoera juridikoa eta zertarako erabiliak izaten ari diren adieraziz.*

- *Inbentarioko altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, haren etengabeko gaurkotzea eta hark kontabilitatean ibilgetuarekin lotura izatea bermatu eta bideratzeko.*

- *Kirol-hiria eraiki den lur-sailak, zeinak udalaren jabetzakoa baitira, lagatzeko akordioa formalizatzea.*

VI.7. HIRIGINTZA

Tafallako Udalaren Antolamendu Plana 1994an onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Gaur egun arte, udalak ez du abiatu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko tramiterik.

Udalaren lurzoru-ondarea ez da kudeatzen erakundearen gainerako ondasunetatik berezita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta berezia izatea, eta era berean, ez da sortu ondasun horien sarrera eta irteeraren berri emateko erregistroa.

Udalak aurkezturiko oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzaturiko hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Hirigintza-jarduketan zerrenda bat aztertu dugu eta egiaztatu ahal izan dugu ezen, oro har, behar bezala izapidetu direla.

Hona gure gomendioak:

- *Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenetara moldatzea hirigintza-plangintza.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik berezita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela izaeraz.*

VII. "CIUDAD DEPORTIVA TAFALLA, S.A." SOZIETATEA

Pertsona bakarreko sozietatea da "Ciudad Deportiva Tafalla, S.A.," eta Tafallako Udala du akziodun bakarra. 2001ean eratu zen, kapital soziala 300.000 eurokoa zela. Kapital sozial horretan, bost kapital-gehikuntza egin dira, guztira 13.917.000 euro egiten dutenak.

2009an, udalak sozietateari 68.400 euro egiten duten kapital-transferentziak eman dizkio, inbertsioak finantzatzeko.

Sozietateak 48.000 euro itzuli dizkio udalari, kapital-gehikuntzarako aurrerakin bati zegozkionak.

2009ko ekitaldiko urteko kontuak 2010eko maiatzaren 25ean onetsi ziren, eta txosten honi erantsirik oroitidazkian sartuta daude.

2009ko abenduaren 31n, ekitaldiaren emaitzak negatiboa izaten segitzen du (-215.659 euro), nahiz eta bilakaera positiboa agertzen duen.

	2005	2006	2007	2008	2009
Ekitaldiko emaitzak	-405.486	-326.476	-323.016	-268.079	-215.659
Ibilgetuaren amortizazioa	354.485	354.875	356.064	330.615	333.308
Emaitzak amortizaziorik gabe	-51.001	28.399	33.048	62.536	117.649

Ganbera honek fiskalizatu gabeko 2009ko eta 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantzeek eta galeren eta irabazien kontuek –urteko kontuetan sarturik daude– honako saldoak agertzen dituzte:

Egoera-balantzea

AKTIBOA	2009	2008	PASIBOA	2009	2008
Aktibo ez korrontea	13.913.151	14.236.719	Ondare garbia	13.921.554	14.188.510
Eraikinak	15.333.899	15.333.899	Kapitala	13.917.000	13.917.000
Lanabesak	1.175	1.175	Borondatezko erreserbak	-57.153	-57.153
Bestelako instalazioak	266.111	256.371	Aurreko ekitald. emaitza negatiboa	-1.430.418	-1.162.339
Altzariak	5.447	5.447	Ekitaldiko galerak	-215.660	-268.079
Amortizazio metatua	-1.693.481	-1.360.173	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.707.785	1.759.081
Aktibo korrontea	53.544	43.645	Pasibo ez korrontea	20.097	30.145
Zordunak	17.937	32.094	Pasibo korrontea	25.044	61.709
Epe laburreko interesak, taldeko entitateak	-	22.584	Epe laburreko zorrak	-	48.000
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	20.275	-	Merkataritzako hartzekodunak	25.044	13.709
Eskudirua	15.332	-11.033			
Aktiboa, guztira	13.966.695	14.280.364	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	13.966.695	14.280.364

Galera eta irabazien kontua

ZORRA	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia	HARTZEKOA	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
GASTUAK	371.198	355.375	DIRU-SARRERAK	155.539	87.295
Bestelako ustiatze-gastuak	36.484	20.602	Negozio-zifraren zenbateko garbia	35.840	35.998
Konponketa eta kontserbazioa	29.059	11.686	Salgaien salmenta	20.655	20.410
Zerbitzu profesional independenteak	6.285	6.996	Bukatutako produktuen salmentak	15.185	15.005
Banku zerbitzuak eta antzekoak.	239	119	Emandako zerbitzuak	-	583
Hornigaiak	823	1.642			
Bestelako zerbitzuak	78	5	Ustiatetaren bestelako diru-sarrerak	68.400	-
Aparteko gastuak	-	154	Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	68.400	-
Ibilgetuaren amortizazioa	333.308	330.615	Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena eta beste batzuk	51.297	51.297
Ibilgetu materialaren amortizazioa	333.308	330.615	Dirulaguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak, ekitaldiko emaitzari transferitutakoak	51.297	51.297
USTIATZE-ETEKINAK	-	-	USTIATZE-GALERAK	214.255	263.922
Gastu finantzarioak	1.406	4.158	Diru-sarrera finantzarioak	2	1
Zorren interesak, taldeko enpresak	1.220	3.854	Bestelako diru-sarrera finantzarioak	2	1
Bestelako gastu finantzarioak	186	304			
Emaizta finantzarioak (etekinak)	-	-	Emaizta finantzarioak (galerak)	1.404	4.157
			ZERGA AURREKO EMAITZA (GALERAK)	215.659	268.079
			EKITALDIKO EMAITZA (GALERAK)	215.659	268.079

Txosten hau auditore M^a. Pilar Sola Mateos andreak, lan honen arduradunak, proposatuta egin da, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

2. ERANSKINA: "HOSPITAL NUESTRA SEÑORA DE LA CARIDAD" ERAKUNDEA

"Hospital Nuestra Señora de la Caridad" erakundeak administrazio batzarrak, 2010eko apirilaren 21ean eginiko bileran, 2009ko kontuen itxiera onetsi zuen.

2009ko eta 2008ko ekitaldietako egoerari buruzko balantze laburbilduaren xehetasuna –oraindik ere ez da ekitaldi horien auditoriarik egin– ondoren datorrena da:

AKTIBOA	2009	2008	PASIBOA	2009	2008
Ibilgetu materiala	6.696.503	2.377.691	Gizarte funtsa	31.984	307.644
Aktibo zirkulatuak	471.844	2.549.004	Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	-230.418	-156.149
Zordunak	463.281	463.451	Ekitaldiko soberakina	-158.754	-74.269
Aldi baterako finantza-inbertsioak	-	1.837.000	Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak	5.725.782	4.389.108
Diruzaintza	8.563	248.553	Epe luzeko hartzekodunak	1.460.000	-
			Epe laburreko hartzekodunak	339.753	460.361
Aktiboa, guztira	7.168.347	4.926.695	Pasiboa, guztira	7.168.347	4.926.695

2009ko eta 2008ko ekitaldietako galera eta irabazien kontua honako hau da:

GASTUAK	2009	2008	DIRU-SARRERAK	2009	2008
Ustiapeneko gastuak	1.167.658	1.207.671	Ustiapeneko diru-sarrerak:	975.498	1.008.795
Ustiapeneko kontsumoak	208.332	207.102	Negoio-zifraren zenbateko garbia	972.603	991.067
Langile-gastuak	741.529	786.274	Ustiapeneko beste diru-sarrerak	2.895	17.728
Amortizaziorako zuzkidurak	26.226	24.982			
Bestelako ustiatze-gastuak	156.161	149.672			
Jarduerarako horniduren aldaketak	35.410	39.641			
I. USTIATZEAREN ETEKINA	-	-	I. USTIATZEAREN GALERA	192.160	198.877
Finantza-gastuak eta antzeko gastuak	22.657	3.844	Diru-sarrera finantzarioak	29.890	103.885
II. FINANTZA-EMAITZA POSITIBOA	7.233	100.041	II. FINANTZA-EMAITZA NEGATIBOA	-	-
III. Jardueren etekin arrunta	-	-	III. JARDUERA ARRUNTENGATIKO GALERAK	184.927	98.835
Ezohiko gastuak	53	422	Kapitaleko diru-laguntzak, ekitaldiko emaitzara transferituak	26.226	24.988
IV. EZOHIKO EMAITZA POSITIBOAK	26.173	24.566	IV. EZOHIKO EMAITZA NEGATIBOAK	-	-
V. ZERGEN AURRETIKO ETEKINAK	-	-	V. ZERGEN AURRETIKO GALERAK	158.754	74.269
VI. EKITALDIAREN EMAITZA - ETEKINA	-	-	VI. EKITALDIAREN EMAITZA - GALERA	158.754	74.269

Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko abenduaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Tuterako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2009ko ekitaldiko, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Tuterako Udalari buruzko fiskaliza- zio txostena, 2009ko ekitaldiko, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (21. or.).
 - II. Helburua (22. or.).
 - III. Norainokoa (22. or.).
 - IV. Iritzia (22. or.).
 - IV.1. Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra (22. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (22. or.).
 - IV.3. 2009ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (22. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetze-maila (23. or.).
 - V. 2009ko kontu orokor bateratuaren laburpena (24. or.).
 - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetze-egoera (24. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emitza bateratua (25. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (25. or.).
 - V.4. Egoeraren balantze bateratua (euroak, milakotan) (26. or.).
 - V.5. Galera eta irabazien kontua (27. or.).
 - VI. Iruzkinak, ondorioztapenak eta gomendioak (28. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (28. or.).
 - VI.2. Langileak (29. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (30. or.).
 - VI.4. Inbertsioak (31. or.).
 - VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (32. or.).
 - VI.6. Gorabeherak (33. or.).
 - VI.7. Hirigintza (33. or.).
1. eranskina. Udalaren organigrama (35. or.).

(Oharra: 2. eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorrerako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnava-rra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

2010eko ekitaldirako bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren eta bere erakunde autonomoen 2009ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Entitatea	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2009-12-31n
Udala	45.809.788	47.837.064	298
Uren Udal Batzarra	5.673.895	5.384.879	27
Castel-Ruiz Kulturgunea	3.535.099	3.541.260	29
-BATERATZEAREN DOITZEAK	-2.800.000	-2.800.000	
Bateratua, guztira	52.218.782	53.963.203	354

2009an, Udalak onetsi du Castel Ruiz erakunde autonomoa entitate publiko enpresarial bihurtzea. Entitate horrek 2010ean hasi zituen bere jarduerak.

Udala Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatean sarturik dago, eta horren bidez ematen ditu hondakin solidoen bilketaren zerbitzua, etxeak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoaren (ORVE) zerbitzua eta txakurtegiaren zerbitzua.

Orobat parte hartzen du UNEDen Tuterako ikastetxe elkartuan, Tarazonicaren Bide Berdearen partzuergoan, Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoan (EDER) eta Errege Bardeako Batzarrean.

Toki entitateari 2009ko ekitaldian aplikatzeko den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki Araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitatei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

Tuterako Udalak, 2009ko urtarrilaren 1ean, 34.717 biztanle zituen.

Tuterako Udalak, zerbitzu publikoak emateko, bi erakunde autonomo dauzka: Uren Udal Batzarra eta Castel Ruiz Kulturgunea. Hona hemen horiek 2009ko abenduaren 31n zeuzkaten zifra adierazgarriak:

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

- Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Lege Dekretua, toki-inbertsioko estatu-funts bat eta ekonomia nahiz enplegua dinamizatzeko estatu-funts berezi bat eratzen dituen.

- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru Dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2009ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia adierazten dugu. Bosgarrenean, udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratu nagusiak azaltzen dira. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, bi eranskin jaso dira: bata entitatearen organigramarekin eta bestea udalak 2009ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Tuterako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tuterako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Tuterako Udalaren 2009ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta 2009ko abenduaren 31n lortuak zeuzkan emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Tuterako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoek 2009an aurrera eramandako jardueran.

c) Tuterako Udalaren eta haren mendeko erakunde autonomoen 2009ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Tuterako Udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Kontabilitateko honako egoera-orriak dauzka:

- Toki-entitatearen kontua eta haren erakunde autonomoena (Uren Udal Batzarra eta Castel Ruiz Kulturgunea): Aurrekontuaren likidazioa, balantzea, galeren eta irabazien kontua eta eranskinak.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta ingurubarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika,

edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoi dagokienez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarriko prozedura administratiiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenak.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Tuterako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2009ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2009ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Kontu orokorrak ez du jasotzen bertako funtzionarioen pentsioen montepio berekitik eratorritako betebeharrak aktuariaren kuantifikazioa.

Alde batera utzita arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioak, eta inbertsioak finantzatzera bideratutako zorrari aurre egiteko baliabideak sortzeko ziurgabetasuna, udalaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2009ko ekitaldian udalaren eta haren erakunde autonomoen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. 2009ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Behin betiko aurrekontu bateratua, 2009ko abenduaren 31n, 84,6 milioi eurokoa da, hasierako aurreikuspenak % 54 egin baitu gora, funtsean inbertsioen eta haien finantziazioaren kapituluarekin lotutako aurrekontu-aldaketaren ondorioz. Behin

betiko aurrekontu hori aurreko ekitaldikoa baino ehuneko 3 altuagoa da.

Aitortutako betebeharrak bateratuak 52,2 milioi eurokoak izatera iritsi dira, eta aitortutako eskubiak, berriz, 53,9 milioi eurokoak izatera. Aurrekontu bateratuaren gaineko exekuzio-maila, hurrenez hurren, ehuneko 62 eta ehuneko 64 da. 2008rekin alderatuta, gastuek ehuneko 13 egin dute gora eta diru-sarrerek, berriz, ehuneko 36. Azken horiek, 11,2 milioi euroko maileguak hitzaritzeagatik.

Eragiketa-motaren arabera, gastu arrunt bateratuak 35,8 milioi eurokoak dira, eta kapitalekoak,

funtsean inbertsioak, 16,4 milioi eurokoak. Diru-sarrera arruntak 35,3 milioi eurokoak dira, eta kapitalekoak, 18,7 milioi eurokoak.

Aurrezki gordin bateratua (diru-sarrera arruntak ken funtzionamendu-gastuak) eta aurrezki garbi bateratua (aurrezki gordina ken finantza-zama) azken ekitaldian lehenengo aldiz negatiboak izatera iritsi dira, 170.789 euro eta 1.690.107 euro hurrenez hurren. Aurrezki gordin negatiboaren ondorioz, zorpetzearen muga ere negatiboa da eta, hala eta guztiz ere, zorpetze-maila diru-sarrera arruntan ehuneko 4,30 da. Horrenbestez, ez dago zorpetzeko ahalmenik. Honakoak dira kopuruak 2009an eta 2008an:

	2009	2008
AURREZKI GORDINA	-170.789	2.722.122
Aurrezki gordinaren %*	% -0,48	% 7,44
AURREZKI GARBIA	-1.690.107	1.023.604
Aurrezki garbiaren %	% -4,79	% 2,80
FINANTZA ZAMA	1.519.318	1.698.518
Zorpetze mailaren %	% 4,30	% 4,64
ZORPETZE MUGA	-170.789	2.722.122
Zorpetze mugaren %	% -0,48	% 7,44
ZORPETZE-AHALMENA	-1.690.107	1.023.604
Zorpetze-ahalmenaren %	% -4,79	% 2,80

Aurrekontu-emaizta bateratu doituari, ekitaldian amaieran, 2,4 milioi euroko defizita izan da (2008an, aldiz, milioi bat euroko superabita izan zen).

Guztizko diruzaintzako gerakin bateratua berriz ere negatiboa da, 230.598 euro negatiboa hain zuzen (2008an, -727.625 izan zen). Gastu orokorretarako gerakinak ere 15,8 milioi euro negatiboa izaten jarraitzen du (16,2 milioi euro negatibo 2008an).

2009ko abenduaren 31ko finantza-zor bateratua 34,2 milioi eurokoa da. Horrek esan nahi du ehuneko 42ko hazkundea izan dela aurreko ekitaldiko zorraren aldean (24,1 milioi euro 2008ko abenduaren 31n).

Emaitzak eta adierazle garrantzitsuenak aztertuz, 2009an egiaztatzen da Tuterako Udalaren egoera finantzarioaren endekatzea, 2008an hasitakoa. Izan ere, azken ekitaldian lehenengo aldiz aurrekontu-emaizta eta aurrezki gordina negatiboak dira eta diruzaintzako gerakin negatiboari eusten zaio. Azken ekitaldian, horri guztiari epe luzeko zorraren igoera gehitu behar zaio. Zor hori handi-

tuko da jada baliabideak behar direnean bai eginko inbertsioak finantzatzeko, bai bidean direnak finantzatzeko.

Udalak, aurrezki garbi negatiboa lortzearekin, kreditu-eragiketa berriak egiteko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren baimena behar du. Hori dela eta, 2010etik 2015era bitarteko aldirako plan bat egin da, udalak 2010eko maiatzaren 28ko Osoko Bilkuran onetsi zuena.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez, zeina 2008ko ekitaldiari buruzkoa baita eta 2010eko martxoan argitaratu baitzen, honako gomendio hauek bete dira edo ezartzeko bidean daude:

- Diruzaintzako egoera-orriak banku-kontu guztiak jasotzea.
- Exekuzio-oinarriak osatzea aurrekontu-kudeaketarako oinarritzko prozedurekin, eta ardu-

radunak identifikatu eta esleitzea, udalaren aurrekontuan eta egoera finantzarioan eragina izan dezaketen jarduketara guztietarako.

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek, besteak beste:

- Aurrekontua onesteari buruz lege indardunetan ezarritako epeak betetzea.

- Aurrekontuan inbertsioetarako jasotzen diren zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitze-arren.

- Diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzea, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako moduetatik edozeinetan.

V. 2009KO KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA

V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZE-EGOERA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebehargarbiak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1 Langileria-gastuak	17.614.706	17.804.780	16.211.412	91	15.971.349	99	240.063
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	18.040.998	18.427.762	16.782.862	91	13.877.057	83	2.905.805
3 Finantza-gastuak	797.264	477.110	334.667	70	311.928	93	22.739
4 Transferentzia arruntak	2.430.656	2.873.026	2.485.303	87	1.956.737	79	528.566
6 Inbertsio errealak	14.079.800	43.021.297	14.782.090	34	9.870.369	67	4.911.721
7 Kapital-transferentziak	750.000	750.000	437.797	58	413.822	95	23.975
8 Aktibo finantzarioen aldaketa							
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	1.291.347	1.291.347	1.184.651	92	1.184.651	100	
Gastuak, guztira	55.004.771	84.645.322	52.218.782	62	43.585.913	83	8.632.869

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeko
1 Zuzeneko zergak	10.693.100	10.693.100	10.347.340	97	9.644.794	93	702.546
2 Zeharkako zergak	2.200.000	2.528.856	1.210.524	48	647.632	54	562.892
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	9.183.671	9.311.864	8.295.911	89	6.990.278	84	1.305.633
4 Transferentzia arruntak	16.823.000	17.003.848	13.475.030	79	12.791.658	95	683.372
5 Ondareko diru-sarrerak	1.875.200	1.875.200	1.979.983	106	1.841.725	93	138.258
6 Inbertsio errealen besterentzea	1.000.000	1.000.000	1.980	0	1.980	100	-
7 Kapital-transferentziak	959.367	9.986.212	7.452.436	75	5.622.515	75	1.829.921
8 Aktibo finantzarioak		-27.611.988					
9 Pasibo finantzarioak	12.270.433	59.858.230	11.200.000	19	7.600.000	68	3.600.000
Dirusarrerak, guztira	55.004.771	84.645.322	53.963.204	64	45.140.582	84	8.822.622

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ Aitorturiko eskubide garbiak	53.963.204	39.605.828
- Aitorturiko betebeharrak garbiak	52.218.782	46.228.169
= AURREKONTU EMAITZA	1.744.422	-6.622.341
DOITZEAK		
- Finantzetaren desbideratze positiboa	325.697	
+ Finantzetaren desbideratze negatiboa	22.547.414	27.789.011
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	-26.407.461	-20.194.113
= AURREKONTU EMAITZA DOITUA	-2.441.322	972.557

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
+ KOBRATZEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	9.955.738	5.956.134
+ Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	8.822.622	4.482.094
+ Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	3.725.691	2.761.456
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	866.972	1.462.336
- Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	-70.635	-177.320
- Bilketa zaileko eskubideak	-3.388.912	-2.572.432
- ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	11.046.680	10.859.866
+ Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	8.630.570	7.145.676
+ Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	814.868	1.605.325
+ Diru-sarreraren aurrek.	80.548	87.321
+ Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	326.523	286.543
- Aplikatzeke dauden gastuak	-37.946	-36.508
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.232.117	1.771.509
+ DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK	860.344	4.176.107
+ Finantziario-desbideratze metatu negatiboak		
= DIRUZAINZAKO GERAKINA, GUZTIRA	-230.598	-727.625
Finantzetara atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	408.887	253.146
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	15.208.940	15.208.940
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-15.848.425	-16.189.711

V.4. EGOERAREN BALANTZE BATERATUA (euroak, milakotan)

AKTIBOA

Deskribapena	2009	2008
A IBILGETUA	133.734.404	127.037.429
1 Ibilgetu materiala	105.745.311	99.057.221
2 Ibilgetu ez-materiala	184.860	102.795
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	10.248.817	10.430.422
4 Herri-ondasunak	17.548.925	17.440.499
5 Ibilgetu finantzarioa	6.491	6.491
B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK		
6 Deuseztatu beharreko gastuak		
H ZIRKULATZAILEA	19.046.013	13.016.183
7 Izakinak	96.734	97.682
8 Zordunak	13.414.868	8.705.502
Aplikatzeko dauden kontusailak	38.363	36.892
9 Kontu finantzarioak	860.344	4.176.107
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak		
11 Aplikatzeke dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	4.635.704	
AKTIBOA, GUZTIRA	152.780.417	140.053.612

PASIBOA

Deskribapena	2009	2008
A FUNTS BEREKIAK	101.260.553	99.569.015
1 Ondarea eta erreserbak	42.766.259	47.954.844
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)		710.118
3 Kapitaleko diru-laguntzak	58.494.294	50.904.053
B ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	3.388.912	2.572.432
4 Hornidurak	3.388.912	2.572.432
H EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	35.007.211	24.975.422
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailuak	35.007.211	24.975.422
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	13.123.741	12.936.743
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	11.084.626	10.896.373
6 Aplikatzeke dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	2.039.115	2.040.370
PASIBOA, GUZTIRA	152.780.417	140.053.612

V.5 GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

ZOR			HARTZEKO A		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKO A 2009an:	ZENBATEKO A 2008an:	DESKRIBAPENA	ZENBATEKO A 2009an:	ZENBATEKO A 2008an:
3 Hasierako izakinak	97.682	109.579	3 Bukaerako izakinak	96.734	97.682
39 Izakinen balio-galtzeen hornidurak			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak	100.849	103.392	70 Salmentak	6.134.548	5.791.116
61 Langileria gastuak	14.645.892	14.320.845	71. Ondasunaren eta enpresaren errenta	3.693.376	4.164.038
62 Finantza-gastuak	336.417	513.833	72 Produktzioari eta inportazioari loturiko tributuak	9.574.168	9.597.848
63 Zergak	1.018	13.574	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	1.706.735	1.610.424
64.- Kanpo-zerbitzuak, lanak eta hornidurak	16.512.750	15.717.432	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	6.000	6.000
65 Gizarte prestazioak	1.733.765	1.734.949	76 Transferentzia arruntak	13.365.350	14.054.542
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0		77 Kapitalaren gaineko zergak	276.962	900.947
67 Transferentzia arruntak	2.485.303	1.970.854	78 Bestelako diru-sarrerak	674.275	469.986
68 Kapital transferentziak	404.898	198.908	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak	71.644	9.969
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	3.488.330	2.715.510	79 Daukaten helbururako aplikaturiko hornidurak		
Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)			800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	4.207.112	696.324
GUZTIRA	39.806.904	37.398.876	GUZTIRA	39.806.904	37.398.876

Ekitaldiko emaitzak

ZOR			HARTZEKO A		
DESKRIBAPENA	ZENBATEKO A 2009an:	ZENBATEKO A 2008an:	DESKRIBAPENA	ZENBATEKO A A 2009an:	ZENBATEKO A 2008an
Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	4.207.112	696.324	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	0
82 Ezohiko emaitzak (Saldo zorduna)	0	9.399	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	1.065	1.956.849
83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	75
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	451.038	550.362	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	21.381	9.279
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	710.118	89. Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	4.635.704	0
GUZTIRA	4.658.150	1.966.203	GUZTIRA	4.658.150	1.966.203

VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko ondorio nagusiak eta gomendioak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

VI.1.1. Aurrekontuaren eta Kontu Orokorra- ren alderdi orokorrak

2009ko ekitaldirako aurrekontu bateratuak 2009ko apirilaren 22an hartu zuen indarra, haren behin betiko onspena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin.

IV.3 epigrafean aztertutako magnitude bateratu nagusien xehetasunak ondoren ematen ditugu, udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez:

	Bateratua (*)	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz Kulturgunea
Hasierako aurrekontua	55.004.771	50.909.491	3.351.780	5.000.500
Aurrekontuko aldaketak	29.640.552	23.946.354	5.655.806	68.340
Behin betiko aurrekontua	84.645.323	74.855.845	9.007.586	5.068.840
Aitorturiko betebeharrak	52.218.782	45.809.788	5.673.895	3.535.099
Likidaturiko eskubideak	53.963.204	47.837.064	5.384.879	3.541.261
Gastu arruntak (1etik 4ra)	35.814.244	32.637.059	2.543.103	3.434.082
Kapital gastuak (6tik 9ra)	16.404.538	13.172.730	3.130.792	101.017
Gastu arruntak (1etik 5era)	35.308.788	31.550.584	3.016.944	3.541.260
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	18.654.416	16.286.480	2.367.936	0
Aurrekontu-emaiza	1.744.421	2.027.275	-289.016	6.162
Aurrekontu-emaiza doitua	-2.441.322	-2.760.321	312.838	6.162
Aurrezki gordina	-170.789	-754.184	476.217	107.178
Aurrezpen garbia	-1.690.107	-2.251.743	454.458	107.178
Diruzaintzako gerakina, guztira	-230.598	-487.162	243.094	13.470
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-15.848.425	-16.104.989	243.094	13.470

(*) Aldeak bateratzearen ondoriozko doikuntzei dagozkie

2009ko aurrekontuaren ezaugarria da, 2006tik hasita azken ekitaldietan bezala, aurrekontu-aldaketak zenbateko handia izatea, zeinak inbertsioetan eta haien finantziazioan baitu eragina.

Aitortutako guztizkoan garrantzi handiena duten gastu-kapituluak honakoak dira: ondasun arruntei eta zerbitzuei dagokiena, zeinak guztizkoaren ehuneko 32 egiten baitu; langileei dagokiena, ehuneko 31; eta inbertsio errealena, ehuneko 28. Azken kapitulu hori, zeinak aurrekontu-dotazio handia baitu (43 milioi euro), nabarmentzen da

exekuzio-maila txikia duelako (ehuneko 34), azken ekitaldietan jada ohikoa den bezala.

Gastu arrunten erabilerari dagokionez⁽¹⁾, eta informazio xede hutsetarako, zazpi zerbitzuek udalaren gastu arrunt guztien ehuneko 70 kontsumitzen dute: segurtasuna eta polizia (ehuneko 15); kultura (ehuneko 13); oinarrizko gizarte zerbitzua (ehuneko 11); hirigintza eta arkitektura (ehuneko 9); haur eskolak (ehuneko 8); bide-garbiketa (ehuneko 7) eta kirolak (ehuneko 7).

(1) Toki entitateek herritarrei ematen dizkieten zerbitzu nagusien kostuak kalkulatzeko Toki Administrazioiko Departamentuak garranturiko aplikazio informatikotik eskuratutako datuen arabera.

Diru-sarrerei dagokienez, ehuneko 39 transferentzia arruntetatik eta kapitaleko transferentzietatik heldu dira; ehuneko 36 zergetatik eta tasetatik, eta ehuneko 21 finantza-pasiboetatik. Azken kapitulu horretan, aurrekontuan jasotako 60 milioi eurotatik soilik 11 bete dira.

2009ko diruzaintzako gerakina negatiboa da (230.598 euro), aurreko urtean bezala, orduan ere negatiboa izan baitzen (727.625 euro). Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 230. artikulua ezartzen du diruzaintzako gerakin negatiboa duen aurrekontu bat likidatzerakoan zein neurri aplikatu behar diren. Bada, neurri horiek ez dira gauzatu 2009ko ekitaldian. Horri dagokionez, kontuan hartu behar dira defizit publikoa gutxitzeko 12/2010 Foru Legean aurreikusitako neurri bereziak.

2009ko abenduaren 31n amortizatu gabeko zor bateratua 34,2 milioi eurokoa da. Aurreko ekitaldian, udalak erabilgarri zeuzkan baliabide finantzarioek –besteak beste, 12 milioi euroko mailegu bat, Nafarroako Gobernuak 2007an eman zuena proiektu-idazketako fasean dagoen jarduketa baterako– bidea eman dute inbertsioak ordaintzeko, haietarako aurreikusitako muturreko finantziatziora jo behar izan gabe. Egitate horrek, zeinak finantzazama txikiagoa baitakar berekin, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina negatiboa izatea eragin du. Halaber, erantsitako oroitidazkian, horri dagokionez, honakoa esaten da: “baldin eta abian diren inbertsioei dagozkien mailegu formalizatu gabeak sartzen badira –inbertsio horiek 2005tik 2009ra bitarteko ekitaldian bukatu ziren–, zor bizia 67,4 milioi eurokoa da.”

Kontuan izanda 2009ko aurrezki garbi bateratua negatiboa dela, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 130. artikulua indarrez, entitateak Foru Komunitateko Administrazioaren baimena behar du kreditu-eragiketarik hitzartzeko. Horretarako eskaria, saneamendu finantzarioko plan batekin aurkeztu beharko da, non hartuko baitira kudeaketa, tributu, finantza eta aurrekontu arloko neurriak, gutxienez entitatearen aurrezki negatiboa zerora ekartzeko modukoak.

2010ean, udalak baimena eskatu dio Nafarroako Gobernuari 12 milioi euroko kreditu-eragiketa bat hitzartzeko, behin udaleko Osoko Bilkurak onetsitako saneamendu plana egin ondoren.

Hona gure gomendioak:

- *Indarreko legediak ezarritako epeetan egin eta onestea aurrekontuak, kudeaketarako oinarriko lanabesa izan daitezen.*

- *Kalkulatzeko zein eragin izan den hurrengo ekitaldian inbertsio proiektu berriak abian jarri eta urtero mantentzeak dakartzaten gastu arruntek.*

- *Diruzaintzako gerakin negatiboa finantzatzea, aplikatzeko den araudian aurreikusitako moduetatik edozeinetan.*

- *Aztertzea zer finantza-zama hartu beharko duen udalak bere gain, eginiko nahiz aurreikusitako inbertsioak finantzatzeko aldera, horien bideragarritasuna ikusteko.*

VI.1.2. Beste alderdi orokor batzuk

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen du dirulaguntzen plan estrategiko bat taxutu beharra, lortu nahi diren helburuen eta ondorioen arteko konexioa ezartzeko, aurreikusitako kostuekin eta finantza-iturriekin. Helburua da dirulaguntzen bidez bete beharreko beharrezko publikoak egokitzea, baliabide eskuragarrien aurreikuspenarekin, aldeztu eta urte anitzeko izaeraz.

Udalak ez du dirulaguntzei buruzko plan estrategikorik. Hala eta guztiz ere, dirulaguntza horien ematea arautzen du berariazko ordenantzak egin; izan ere, bete beharreko helburuen arabera egokitzen ditu ordenantza horiek. Esate baterako, enpresak ezarri eta zabaltzeko laguntzak arautzen dituen ordenantzak arazoak zeuzkan foru arauak eta Europako arauak egokitzeari dagokionez, eta haren ordeztu beste ordenantza bat onetsi da.

Uren Batzarraren diru-bilketa exekutiboaren kontua, zeina banku entitate batean baitago, Tuterako Udalaren izenean dago. 2010ean, jarraibideak eman dira kontu hori aipatutako erakunde autonomoaren izenean jartzeko.

Hona gure gomendioak:

- *Dirulaguntzak emateko prozedurari buruzko ordenantza orokorra onestea eta plan estrategiko bat taxutzea.*

- *Uren Batzarraren diruzaintzako egoera-orrian diru-bilketa exekutiboaren kontua sartzeko.*

VI.2 LANGILEAK

Langileen atalean aitortutako betebeharrak bateratuek 16.211.412 euro egiten dute, hau da, 2009an sortutako gastu guztien ehuneko 31 eta gastu arruntaren ehuneko 45. Ehuneko 2ko hazkundera gertatu da 2008. urtearen aldean.

Kapitulu honetako gastu bateratutik 13.825.788 euro udalari dagozkio; 1.445.395 euro, Castel Ruiz

Kulturguneari, eta Uren Batzarrari, azkenik, 940.229 euro.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2009rako plantilla organikoari, zeina udal organigrama berriari eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak eginiko "Lanpostuak Baloratze-ko Txostenari" egokitzen baitzaie, 2009ko abuztuaren 31n eman zitzaion behin betiko onespena, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin. Hartan, 354 lanpostu daude, eta haietatik lanpostu hutsak ehuneko 35 dira. 2009rako enplegu eskaintza publikoak, zeina 2009ko azaroaren 27an argitaratu baitzen, lanpostu huts guztiak bil-tzen ditu.

Gastu horien gainean lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipe-nak zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela. Alabaina, ez dago aparteko orduak kontrolatzeko prozedura egokirik.

Hona gure gomendioak:

- *Aztertzea plantilla organikoa egokitzen ote zaien egiazko langile-premiei, ikusita lanpostu huts asko dagoela.*

- *Aparteko orduak, hala ordainduak nola atse-den-denborarekin konpentsatuak, kontrolatzeko prozedura ezartzea, alderdi guztiak kontuan hartu-ko dituen: baimenetik hasita langileen ordezkari-entzako informazioraino, lan-baldintzei buruzko akordioa betetze aldera.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBI-TZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzu bateratuetan eginiko gastuek 16.782.862 euro egin dute 2009an, eta ekitaldian aitortutako guztizkoaren ehuneko 32 eta eragiketa arrunten gastuen ehune-ko 47 egiten dute. 2008ko ekitaldiaren aldean, ehuneko 5 igo da.

Honakoa da entitatearen araberako banaketa:

	Bateratua	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz Kulturgunea
20 Errentamenduak	72.499	54.196	293	18.011
21 Konponketa-lanak	4.131.523	3.650.910	288.945	191.667
22 Materialak, hornidurak eta bestelakoak	12.221.952	9.618.165	1.303.419	1.300.368
23 Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	325.682	311.162	7.841	6.678
24 Argitalpenak	31.206	3.463		27.744
GUZTIRA	16.782.862	13.637.896	1.600.498	1.544.468

2009an esleitutako honako kontratazio-espeditentek aztertu ditugu:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa (BEZa barne)	Epea
Igerileku estaliak ustiatzea	Laguntza kontratu mistoa	Irekia, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	638.329	3 urte
Ureztatze instalazioetarako goi tentsio elektrikoa	Hornigaiak	Irekia, Europar Batasunean publikitatea eginez	2.597.237	4 urte bitarte
Hornidura- eta saneamendu-sareak konpontzea – Uren Batzarra	Laguntza kontratua	Negoziatua, Europar Batasunean publikitatea eginez	724.767	4 urte
Jaietarako piroteknia – Castel Ruiz Kulturgunea	Hornigaiak	Negoziatua, Europar Batasunean publikitaterik egin gabea	45.900	2009ko jaiak

Berrikuspen horretatik eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin batetik, egiaztatu da behar diren fakturekin justifikatuta daudela eta behar bezala kontabilizatu direla, eta kontratazio administratiboa, oro har, kontratuei buruzko arautan ezarritakoaren arabera egin dela. Hala eta guztiz ere, honakoa aurkitu dugu:

=> Hornidura- eta saneamendu-sareen konponketak

Udalaren Uren Batzarraren espediente hori obren kontratu baten gisara izapidetu da, Europar Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura negoziatuaren bitartez. Kontratuei buruzko Foru Legearen arabera, kontu-hartzailtzaren txostenean adierazten den bezala, laguntza kontratu bat da; horrenbestez, prozedura irekia aplikatu behar zitzaion Europar Batasuneko atalasetik gora.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratazio prozedura egokia aplikatzea, kontratuaren izaeraren eta zenbatekoaren arabera.*

VI.4. INBERTSIOAK

2009an eginiko inbertsioak 14.782.090 eurokoak izan dira. Haien exekuzioa ehuneko 34koa da. Azken ekitaldietako exekuzio-ehunekorik handiena egiten du horrek (ehuneko 25, 2008an; ehuneko 24, 2007an; ehuneko 15, 2006an; eta ehuneko 26, 2005ean. 2008. urtearekin alderatuta, aitorturiko betebeharrak ehuneko 42 egin dute gora.

Comptos Ganberak bere txostenetan behin eta berriro gomendatu du aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitzea.

Aurrekontua hasieran 14,1 milioi eurokoa izate-tik 43 milioi eurokoa izatera pasa da, aurrekontu-aldaketan ondorioz; zehazki, aurreko ekitaldietako inbertsioetarako gerakinak gehitzearen ondorioz (22,8 milioi euro) eta Toki Inbertsiorako Estatu Funtsak sortutako kredituen ondorioz (5,8 milioi euro). Hona zehaztapena, entitatearen arabera:

	Bateratua	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz Kulturgunea
Hasierako aurreikuspena	14.079.800	12.727.750	220.050	1.132.000
Aurrekontuko aldaketak	28.941.497	23.316.900	5.594.649	29.948
Behin betiko aurreikuspenak	43.021.297	36.044.650	5.814.699	1.161.948
Aitorturiko betebeharrak	14.782.090	11.569.664	3.111.410	101.017
Betetzearen %	% 34	% 32	% 54	% 9

Aurrekontuan jasotako inbertsioen pisu handiena udalari zor zaio (43 milioi eurotik 36 milioi euro). Horietatik, ehuneko 48k aurreko ekitaldietan du jatorria (17,1 milioi euro). Gainerakoak 2009ko proiektu berriak dira (18,9 milioi euro). Horietatik nabarmentzekoak dira Toki Inbertsioetarako Estatu Funtsaren babesean eginiko hiru inbertsio.

Funts hori, zeina erabiltzen baita udal eskumeneko obrak, plangintza berrikoak, finantzatzeko,

2007ko erroldako populazioaren zenbatekoen arabera banatzen da, eta Tuterari 5.798.136 euroko finantziarioa dagokio, gehienez (BEZa barne).

Kapitulu honetan udalean aitortutako betebeharrak 11,6 milioi eurokoak dira. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, ehuneko 42 2009a baino lehenagoko aurrekontuetan sarturiko proiektuen exekuzioari dagozkio eta ehuneko 11 baizik ez hasiera batean 2009rako aurreikusitakoei:

	Aurrekontua	Aitorturiko betebeharrak	Aurrekontuko betebeharrak aitortua, %	Aitortutako betebeharren gaineko %
2009 baino lehenagoko proiektuak	17.184.964	4.909.139	% 29	% 42
2009ko proiektuak, estatuko funtsetik kanpo geratutakoak	13.061.550	1.241.542	% 10	% 11
Estatuko funtseko 2009ko proiektuak	5.798.136	5.418.983	% 93	% 47
Udala, guztira	36.044.650	11.569.664	% 32	% 100

Honakoak izan dira inbertsio handiena eskatu duten udalaren proiektuak:

	Aitorturiko betebeharrak
Alfaro-Corella errepideak berrurbanizatzea (FEIL)	3.425.939
Almirantearen Etxea egokitzea	1.412.695
8. sektoreko oztopoak kentzea. Eskuragarritasun Plana. (FEIL)	1.359.819
Belar artifizialeko zelaia	839.949
7. sektoreko oztopoak kentzea. Eskuragarritasun Plana. (FEIL)	633.225
Elvira España I.P.a handitzea	590.000
Kirol Hiria	432.146
Obrak ikastetxe publikoetan	381.379
Guztira	9.075.152

Kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu dugu, bai exekuzio-prozesuan dauden obren arabera, bai ekitaldian amaitutako obren arabera, bai eta 2009an eginiko hurrengo esleipenak ere:

	Kontratu-mota	Prozedura	Esleipenaren zenbatekoa	Epea
Alfaro-Corella errepideak berrurbanizatzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	2.445.268	6 hilabete
Gaztambide Antzokirako ekipamendu eszenikoa	Hornigaiak	Irekia, Europar Batasunean publizitatea eginez	1.804.380	90 egun

Egiaztatu da, oro har, kontratuei buruzko lege-dia bete egiten dela bai kontratazio-espeditentziaz izapidetzean, bai haiek adjudikatu eta betetzean.

Hona gure gomendioak:

• *Aurrekontuan inbertsioetarako jasotzen diren zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealetara doitu eta hurbiltzea, kreditu-gerakinetako saldo handiak*

hurrengo ekitaldietako aurrekontuetara ez gehitze-arren.

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2009ko ekitaldiko eskubide aitortu bateratuak 53.963.204 eurokoak izan dira. Hona entitatearen arabera xehetasunak:

Diru-sarreraren kapituluak	Bateratua (*)	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz Kulturgunea
1 Zuzeneko zergak	10.347.341	10.347.341	0	0
2 Zeharkako zergak	1.210.524	1.210.524	0	0
3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak / Salmentak	8.295.911	4.997.452	3.010.089	288.369
4 Transferentzia arruntak	13.475.030	13.022.117	533	3.252.380
5 Ondare diru-sarrerak eta herri-lurretakoak	1.979.983	1.973.150	6.321	511
Gastu arruntak (1etik 5era)	35.308.789	31.550.584	3.016.943	3.541.260
6 Inbertsio errealak besterentzea	1.980	1.980	0	0
7 Kapitaleko transferentziak eta beste	7.452.436	5.784.500	1.667.936	0
8 Finantza-aktiboak	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	11.200.000	10.500.000	700.000	0
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	18.654.416	16.286.480	2.367.936	0
Diru-sarrerak, guztira	53.963.204	47.837.064	5.384.879	3.541.260

(*) Aldeak bateratzearen ondoriozko doikuntzetatik datoz

Diru-sarreraren aurrekontuko behin betiko aurreikuspenen ehuneko 64 likidatu dira, ondokoen gauzatze maila txikia izatearen ondorioz, funtsean: finantza-pasiboak (ehuneko 19: aurreikusitako 59,8 milioi euroetatik 11,2 milioi euro); Toki Ogasunen Funtsetik jasotako transferentzia arruntak (ehuneko 71: aurrekontuan jasotako 13 milioi euroetatik 9,3 milioi euro); eta hirigintza jarduerarekin lotutako diru-sarrerak.

2008. urtearekin alderatuta, aitorturiko eskubi-deek ehuneko 36 egin dute gora, hitzartutako mai-leguetatik heldu diren diru-sarreraren eta jasotako kapital-transferentzien ondorioz. Diru-sarrera arruntek, ondoren ikus daitekeen bezala, ehuneko 3 egin dute behera:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitorturiko eskubide garbiak, 2009	Aitorturiko eskubide garbiak, 2008	Aldea, ehunekotan 2009/2008
1 Zuzeneko zergak	10.347.340	10.216.912	% 1
2 Zeharkako zergak	1.210.524	1.892.383	% -36
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	8.295.911	8.266.895	% 0
4 Transferentzia arruntak	13.475.030	14.060.541	% -4
5 Ondare diru-sarrerak	1.979.983	2.151.926	% -8
Gastu arruntak (1etik 5era)	35.308.788	36.588.657	% -3
6 Inbertsio errealen besterentzea	1.980	399.530	% -100
7 Kapital transferentziak	7.452.436	2.617.566	% 185
8 Finantza-aktiboak		75	% -100
9 Finantza-pasiboak	11.200.000	0	
Kapitaleko diru-sarrerak (6tik 9ra)	18.654.416	3.017.171	% 518
Diru-sarrerak, guztira	53.963.204	39.605.828	% 36

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

Hona gure gomendioak:

- *Egungo egoera ekonomikoaren aurrean, aurrekontuetako diru-sarreraren zenbatekoak kalkulatzea egiazki dauden eskuratze-aukeren arabera.*

VI.6. GORABEHERAK

Udala eta haren erakunde autonomoak zenbait prozedura judizialean sarturik daude. Ez dakigu erator daitezkeen ondorio ekonomikoek, kasu bada, eragin ekonomiko esanguratsurik izanen duten. Udalak emandako informazioaren arabera, 2010eko apirilean, 104 errekurtsio daude aurkezturik.

Aurkeztutako errekurtsioen artean, honakoak aurki ditzakegu: eguzki-parke baten behe tentsio-ko instalazio elektrikoa jartzeko lanen likidazioaren aurka aurkeztutakoak (obra horiek 855.250 euro egin zuten) eta nahitaezko desjabetzei buruzko bost espedientetan balio justua finkatzearen aurkakoak (1.069.307 euro egiten dute). Halaber, aurkeztutako errekurtsioen kopuru handia dela eta,

nabarmentzekoak dira telefonia konpainia batzuek aurkeztutakoak, tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboarengatiko edo aprobetxamendu bereziarengatiko tasari buruzko ordenantza fiskala dela eta.

VI.7. HIRIGINTZA

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Tuterako Udalaren Antolamendu Plana 1991n onetsi zen. 2006an esleitu zen Hiri Antolamendurako Plana, Lurralde eta Hirigintza Antolamenduari Foru Legeari egokitze aldera. "Lurraldea okupatzeko estrategia eta eredu" izeneko dokumentuari 2007an eman zitzaion hasierako onspena. Gaur egun, Nafarroako Gobernuarekin aldez aurretik hitzartzearen zain gaude, 35/2002 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

Udalak ez du hirigintza hitzarmenen erregistrorik, ez eta udalaren lurzoru-ondarearen inbentario eta erregistro espezifikorik ere; halere, udalaren lurzoru-ondaretik datozen diru-sarrera atxikien jarraipena egiten da.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa ezartzea, indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazioa duela.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen erregistroa eta inbentarioa eratzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela, izaeraz.*

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*

Txosten hau auditore M^a. Pilar Sola Mateos andreak, lan honen arduradunak, proposatuta egin da, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko abenduaren 16an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

